

- Liturgiaren, Elizaren doktrina eta ospearen zaintze arranditsuaren mozorropean ezkututzen den mundutartasuna, Ebanjelioa Jainkoaren Herriaren artean eta historiako behar zehatzen artean txertatzeko inongo ardurarik gabe.

- Gorrotoak, banaketak, irainak, gaizki esateak, mendekuak, jeloskortasunak, kosta ahala kosta nork bere ideiak ezartzeko nahia.

- Behartsuen auziari, zuzentasun sozialari jaramonik ez egin. (EG 201).

③ Jainkoaren Hitzak sakramentuaren prestaketa eta ospakizunean argi egin diezagun, ondorengo testu hauetako bat irakurri eta berekin otoitz egin:

Mt 18, 21-35: Zenbat aldiz barkatu behar da?, eta barkamenaren parabola.

Lk 15, 11-32: Seme xahutzailearen parabola.



Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko gotzainen Pastoral Idazkia irakurtzeko oharrak 2015eko Garizuma eta Pazko aldia

Bihotz errukitsua

Sarrera (1. zenb.)

I. Jainko guztiz errukiorra (3. zenb.)

1. Jauna bihozbera eta errukiorra da (4. zenb.)
2. Eta Errukia “haragi egin zen” (9. zenb.)
3. Eliza, errukiaren tenplua (12. zenb.)

II. Pastoral aldatzea eta ateratzea bilatzen duen Eliza (16. zenb.)

1. Bihotz-berritze pertsonala (17. zenb.)
2. Adiskidetzaren sakramentua (21. zenb.)
3. Elkartearen aldatzea: ateratzea bilatzen duen Eliza (27. zenb.)
4. Espirituaren gidaritzapean (31. zenb.)

III. Errukiaren beharrea dauden eremuak (36. zenb.)

1. Gizarte bizikidetasuna (37. zenb.)
2. Familia (45. zenb.)
3. Behartsu eta baztertuak (52. zenb.)
4. Sufrimendua eta gaixotasuna (60. zenb.)
5. Gizarteko arlo batzuk (65. zenb.)

IV. Lekuko eta mezulari (71. zenb.)

V. Bukaera (74. zenb.)





Material hauek Pastoral Idazkian bakarka sakontzeko erabil daitezke edo delako idazkiaren irakurketa taldean egiteko.

Dena dela, pertsona bakoitzaren nahiz taldearen egoerara askatasun osoz molda daitezke.

② **Kontzientzia-azterketarako ohiko puntuei Frantzisko Aita Santuak *Evangelii gaudium* aholku-hitzean (76-101 zenb.) aipatzen dituen tentazioak erantzi. Gaur egun, kristauon jardura ebanjelizatzaileko eta Elizaren pastoral aldatzerako aurkezten zaizkigun erronkatzat hartu.**

Idazkian, tentazio hauek azaltzen dira:

- Larregizko arduraren autonomia eta distentsiorako eremu pertsonalengatik; ondorioz, eginkizunak bizitzaren eranskin bezala hartzen dira, norbere nortasunaren barnean ez baleude bezala.
- Bizitza espirituala nolabaiteko arintasuna ematen duten baina besteekin bat egitea, munduarekiko konpromisoa eta grina ebanjelizatzailea sustatzen ez dituzten une erlijiosoekin nahastatu.
- Kristau nortasun eta sinesteak erlatibizatzerako edo ezkatuzera daraman gutxiagotasun-konplexua. Besteen antzeko izateko eta besteek daukatena edukitzeko obsesioa.
- Jainkorik ez balego bezala jokatzearren, behartsurik ez balego bezala erabakitzearen, beste inor ez balego bezala amets egitearen... erlatibismo praktikoa.
- Diruak ematen duen segurtasunera edo edozein bidetatik jadesten diren giza botere eta aintzako eremuetara gogor atxikitzea dakarren bizimodua, misioan besteen alde bizi eman ordez.
- Gaizki, motibazio egokirik gabe bizi izandako jarduerak.
- Herriarekiko egiazko hartu-emanen galdu, erakundeetako gizakiei baino arreta gehiago eskaini. Ezinezko egitasmoetako eutsi, prozesuaren bilakaera gaitza ez onartu.
- Porrot-kontzientzia, etsitako ezkor kexati bihurtzen gaituena.
- Norbere baitan itxi, besteengandik pribatutasun erosora edo etxeko eta lagunarteko zirkulu murriztura ihes egin.
- Arlo erlijiosoan indibidualismo gaixoberaren neurriko kontsumismo espiritualerako gunea aurkitu. Elkarterik gabeko «ongizatearen espiritualtasunaren» molde desberdinak edo senide konpromisorik gabeko «ospearen teologiarenak».
- Besteak gaineratik kendu, lotura sakon eta egonkorrik gabe geratuz.
- Giza aintza eta ongizate pertsonala bilatu, nor bere interesak bilatu.
- Kantsolatzen duten esperientzia edo ezagutzen subjektibismoan itxitako fedeak.
- Elitismo nartzisista eta autoritarioa dakarren balizko doktrina- edo diziplina-segurtasuna.

2. ERANSKINA

Adiskidetzaren sakramentuaren ospakizuna prestatzeko

... bultzagarri eta sendagarri izango diren guneak sortzea behar dugula, «Jesu gurutziltzatu eta piztuarekiko fedea bere onera ekartzeko guneak, galderarik sakonenak eta kezkarik ohikoenak partekatu ahal izateko guneak, norbere izateari eta bizipenei buruzko irizpide ebanjelioak sakon bereizteko guneak...» (EG 77)



① 50. Salmoa lagungarri izan dakiguke apaltasunezko eta Jainkoarenganako konfiantzazko jarrera bizkortzeko

Salmo hau penitentzia-erregu nagusia da. Salmogileak, bere behartasun gorriaz jabetuta (7. tx), barrutik erabat aldatu beharra duela sentitzen du, bekaturako joera nagusitu ez dakion (4. tx). Horregatik, bere hutsegiteak aitortu eta jainkozko barkamena erregutzeaz gainera, arren eskatzen dio Jaunari oso-osorik barri dezala, bere barruan “bihotz garbia sortuz” (12. tx).

Adierazten den damuaren araztasuna miresgarria da: bekataria bere bekatuaren eraginez sentitzen da zorigaitzoko... Bekatu hori iraina da Jainkoarentzat. Ez dago gaixotasun-zantzurik, bekataria ez dagoelako bere harren atzaparretan abandonatuta, maite duen “nor baiten aurrean” dago. Maitasunean oinarritzen da dena. Jainkoari zuzentzen zaizkion aginduzko aditzek zera adierazten dute: Jainkoak penitentearen alde jokatu duela, “ezabatze”, “garbitze”, “barkatze”, “arazte”, “poza itzultze”, “berritze”...

Jesusek, “Seme xahutzailearen” parabolaren, 50. salmoko esamoldeak erabili zituen naturaltasunez: “Zeruaren aurka eta zure aurka egin dut bekatu”... Eta salmogileak egin zuenez, “abesti” eta “dantzez” adierazi zuen barkamena.

Nola otoitz egin 50. Salmoarekin?

Esaiozu Jaunari, zintzotasunez eta apaltasunez barrutik nola zauden. Garbitu eta poza berreskuratu nahi duzula adierazi.

Hurbildu Jainkoarengana, bere ontasunez, errukiz eta bihozberatasunez inguratuko zaituenarengana. Utzi zeure burua bere eltzegile-eskuetan, berriren berri sor zaitzan, baina ez ezerezetik, zeu zaren horretatik baizik; erakuts diezazula bere aurpegia eta bere Espiritua oparitu.

Onartu bere barkamenaren poza, beste batzuei haren erruki eta ontasunaren berri emateko. Orain hobeto ezagutzen duzu zeure burua, ezagutzen baituzu zeure makaltasuna; eta hobeto ezagutzen duzu Jainkoa bere barkamen eta maitasunaren esperientzian. Denen aurrean hots egin dezakezu bere errukiaren handitasuna.

Argibide hauek aintzat hartuta, Salmoa bakarka eta isilean irakurri. Gero, taldekide guztiek batera esango dute.

Bihotz errukitsua

Irakurketari ekin aurretik, galdera batzuk aurkeztuko ditugu, bakarka hausnartzeko edota taldean egiteko

1. Zer dakarkit gogora **Errukitsua** hitzak? Zure ohiko hiztegian azaltzen da? Zein adieratan erabiltzen duzu? Zein lekutan eta noren ahotik entzun duzu? Zein testuingurutan? Non eta noren ahotik entzuteak harrituko zintuzke?

Azken batean, hiztegiara begiratu gabe: zein esanahi zehatz emango zenioke **ERRUKITSUA** hitzari?

2. Eta, **bihotz** eta **errukitsua** lotuz gero, zer ematen digu aditzera esamoldeak?

3. Zein leku du gaur egun **ERRUKIAK** gure kulturaren eta gizarte hartu-emanetan? Zein oihartzun eta erantzun eragiten du gure inguru zehatzean **errukiaren** gaiak? Zergatik?

4. Zure ikuspuntutik, zein giza, bakarkako edota taldeko errealitatekin du loturaren bat **errukiak**? Zein errealitatekin ez du loturarik? Zergatik?

5. Aipatuko zenuke **errukia** bizirik dagoela antzematen duzun gizarte gertaera edo egoeraren bat? Ezagutzen duzu zuretzat errukiaren testigantza bizi den gizabanako edo gizatalderik? Zer nabarmenduko zenuke gertaera edo pertsona horiengandik? Zergatik?

6. Zer uste duzu aurkituko duzula **Bihotz errukitsua** izenburua duen Pastoral Idazkia irakurtzean? Zure bizitzako zein alderdi edo arlotan eragin dezake horren edukiak? Eta zein alderdi edo arlotan ez? Zergatik?

7. Talde bezala, zer uste duzue aurkituko duzuela baterako irakurketa honetan?

Pastoral Idazkia irakurri eta hausnarketa burutu ondoren, orain esandakoa erreparatu.

*Garizuma aldia, berrikuntza-aldia da Elizarentzat, elkarreentzat eta sinestudententzat. Baina, batez ere, «graziako aldia» (2 Kor 6, 2). Jainkoak ez digu aurretik eman ez digun ezer eskatzen: «Beraz, maita dezagun, Jainkoak maitatu baikintuen lehenik» (1 Jn 4, 19). **Bera ez da axolagabea gurekin. Gu guztioz arduratzen da, geure izenez ezagutzen gaitu, zaindu eta bilatu egiten gaitu uzten dugunean.***

Mezu honetan nabarmendu nahi dudana erronkarik premiazkoenetakoa axolagabekeriaren globalizazioarena da.

2015eko Garizuma aldirako Frantzisko Aita Santuaren Mezutik



I. Jainko guztiz errukiorra

Irakurri Pastoral Idazkiaren sarrera eta lehen kapitulua (1 – 15 zenb.)

0. Idatzi, zure iritziz, taldearen bileran argitu edo azaldu egin beharko liratekeen esaldi edo puntuak.

1. Aukeratu zuretzat esanguratsuenak diren esaldiak, irakurritakoa laburbiltzeko balioko luketenak.

2. Aurreko puntuan aukeratutako esaldiak taldean batera jarri; horien inguruan elkarriketan jardun eta horien esanahia argitzen eta horretan sakontzen saiatu.

3. Jainkoaren zein irudi antzematen duzu Itun Zaharreko liburuetan? Zein leku hartzen du **errukiak** irudi horretan? Alderdi horri dagokionez benetan esanguratsutzat joko zenukeen bibliako pasarteren bat aipatu.

4. Nola ikusten duzu Jesusengan Jainkoaren **errukia**? Aipatu bere ezaugarri zehatzak. Ebanjelioko zein kontakizun iruditzen zaizu adierazgarri eta erakargarri?

5. Aipatuko zenuke Jesusen jarraitzaile bezala duzun bizipen pertsonalean bereziki esanguratsua den **errukizko esperientzia zehatzen bat**?

6. Elizako kide izanik, elizako zein errealitatek edota elkarte bizipenek laguntzen dizute **“errukiaren tenplu”** bezala ikusten?

Hausnarketaren edo taldearen bileraren azkenean, 135. salmoarekin otoitz egin dezakegu. A. G. Poloren “Orar con los salmos” lanetik hartutako jarraibide batzuk eskainiko ditugu (IKUSI 1. ERANSKINA).



*Garizuma aldia garai egokia da Kristok zerbitzu gaitzan eta, horrela, Bere antzekoa izatera iristeko. Jainkoaren Hitzu entzuten dugunean eta sakramentuak –bereziki Eukaristia-bartzen ditugunean gertatzen da hau. Eukaristian jasotzen dugun horretan bilakatzen gara: Kristoren gorputza. **Berarengan ez dago maiz gure bihotzetan ahalmen handia duela dirudien axolagabekeriarentzako tokirik.** Kristorena denak gorputz bakarrean du parte eta Berarengan ez da axolagabe geratzen besteen aurrean. «Atal batek min duenean, min dute atal guztiak berarekin; eta atal bat onetsia denean, poza dute beste guztiak berarekin» (1 Kor 12, 26).*

Kristauak bere ontasun eta errukiz jantzen, Kristorekin berarekin jantzen uzten dio Jainkoari, Bere antzeko izateko, Jainkoaren eta gizakien zerbitzari..

2015eko Garizuma aldirako Frantzisko Aita Santuaren Mezutik

135. Salmoa

- [1] Eskerrak eman Jaunari, ona baita, haren maitasuna betikoa baita.
- [2] Eskerrak eman jainkoei Jainkoari, haren maitasuna betikoa baita.
- [3] Eskerrak eman jauneri Jaunari, haren maitasuna betikoa baita.
- [4] Bera bakarrik egintza miragarrien egile, haren maitasuna betikoa baita.
- [5] Jakinduriaz egin du zerua, haren maitasuna betikoa baita.
- [6] Uren gainean tinko ezarri lurra, haren maitasuna betikoa baita.
- [7] Argizagi handiak egin ditu, haren maitasuna betikoa baita;
- [8] eguzkia, egunaren gain jartzeko, haren maitasuna betikoa baita;
- [9] ilargia eta izarrak, gauaren gain jartzeko, haren maitasuna betikoa baita.
- [10] Egiptoko lehen-seeak jo zituen, haren maitasuna betikoa baita.
- [11] Israel handik irtenarazi zuen, haren maitasuna betikoa baita;
- [12] ahalmen handiz, esku indartsuz, haren maitasuna betikoa baita.
- [13] Itsaso Gorria erdibi egin zuen, haren maitasuna betikoa baita;
- [14] eta Israel herria erditik pasarazi, haren maitasuna betikoa baita;
- [15] faraoia eta honen gudarostea Itsaso Gorrian amildu zituen, haren maitasuna betikoa baita.
- [16] Basamortuan zehar gidatu zuen bere herria, haren maitasuna betikoa baita.
- [17] Errege handiak jo zituan, haren maitasuna betikoa baita;
- [18] errege ospetsuak hil, haren maitasuna betikoa baita:
- [19] Sihon, amortarren erregea, haren maitasuna betikoa baita;
- [20] eta Og, Baxango erregea, haren maitasuna betikoa baita.
- [21] Eta haien lurraldea bere herriari eman zion, haren maitasuna betikoa baita;
- [22] bere zerbitzari Israeli eman zion ondare, haren maitasuna betikoa baita.
- [23] Oroitu zen gutaz gure eroraldian, haren maitasuna betikoa baita;
- [24] eta etsaiengandik gintuen askatu, haren maitasuna betikoa baita.
- [25] Bizidun guztiak janaritzen ditu, haren maitasuna betikoa baita.
- [26] Eskerrak eman zeruko Jainkoari, haren maitasuna betikoa baita.
- [27] ...
- [28] ...

I. ERANSKINA *Jaunaren maitasuna betikoa da*

135 SALMOA (HAL-LEL HANDIA)



Salbamenaren Historiaren laburpena aurkezten duen erantzun-salmoa da. Jainkoaren egintza gogoratzen du kreaioan (4-9 tx.) eta Israel herriaren aldeko haren jarduera historikoa kontatzen du Irteeratik agindutako Lurrean sartu arte (10-22 tx.).

Leloa, gauza miresgarri horien sorburua den Jainkoaren doako maitasun eta ontasun erukitsua aditzera ematen duen herriaren erantzun liluratu eta eskerronekoa da.

Pazkoko ospakizunean bildutako elkarteak abesten zuen kantika hau, herri askatuaren eskerrona adieraziz.

Israel herriak Jaunak egindako gauza miresgarriak kontatuz abesten du eskerro-neko kantika: herriaren sorrera eta askapena, agindutako lurra jadestea eta Israeleko seme-alabenganako etengabeko ardura. Eta horretarako, lelo hau errepikatzen du: «*Haren maitasuna betikoa baita*».

Baina kreaioaren eta gizadi osoaren Salbamenaren historia markatzen duen gauza miresgarriarik handiena hauxe da: Jainkoak bere Semea mundura bidali duela Aitaren aurpegi erukitsua erakutsi diezagun, bere biziaren emateraino, eta azkenean berpiztu egiten duela, heriotzaren lokarria garaituz. Horrela jakin izan dugu denoiz dagokigula Jesukristorengan Jainkoaren seme eta alaba, betiereko biziaren ziguilaren eroale izatea.

Beraz, geuk ere bertso berriak gehi diezazkiokegu Salmoari, geuk jakin duguna adieraziz: Jesusengan, Jainkoaren Semearengan, “*Errukia haragi egin*” dela, Aitaren aurpegia agertzeraren eman digula, egiaren eta biziaren, giza duintasunaren bidea erakutsi digula eta gaur ere gidatzen gaituela bere Eliza sustatzen duen bere Espirituaren bitartez.

Gainera, gutariko bakoitzak Jainkoaren ekintzen litania hori handi dezake bere bertsoekin, haren ontasun eta hurkotasunaren inguruko esperientzia pertsonalak oroituz (*Berak ekarri ninduen bizitzara... haren maitasuna betikoa baita. Familian sorrarazi ninduen... Bere izena esaten irakatsi zidan... Bere mahaira gonbidatu ninduen... Bere zerbitzari izateko dei egin ninduen... Anai-arrebei laguntzera bidali ninduen... Bere adiskide deitu dit...*).

135. salmoaren baterako errezo patxadatsu eta luzearen ostean, isilunea egingo dugu, kontzientziaren barru-barrutik **Haren nireganako errukizko** uneak, bakarrik Berak eta nik ezagutzen ditugunak, intimitate eta pozezko uneak, oinaze eta damutzezko uneak, grazia eta askapenezko uneak gogoratzeko. *Haren maitasuna betikoa baita.*

Otoitz honekin amaituko dugu: Eskerrik asko, Jauna, munduaren historia oro bere gailurra Kristo gure Jaunarengan duen errukiaren adierazpena delako; zuregandik dena itxaroten dugunok arren eskatzen dizugu zure maitasunaren dohainak isur ditzazula gizon eta emakume guztien gainera. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

II. Pastoral aldatzea eta ateratzea bilatzen duen Eliza

Irakurri Pastoral Idazkiaren bigarren kapitulua (16 – 35 zenb.)

0. Idatzi, zure iritzi, taldearen bileran argitu edo azaldu egin beharko lirakeen esaldi edo puntuak.

1. Aukeratu zuretzat esanguratsuenak diren esaldiak, irakurritakoa laburbiltzeko balioko luketenak.
2. Aurreko puntuan aukeratutako esaldiak taldean batera jarri; horien inguruan elkarriketan jardun eta horien esanahia argitzen eta horretan sakontzen saiatu.
3. Non eta nola antzematen duzu zure bizitzan bihotz-berritze pertsonal berrirako Jainkoaren deia? Zure bizitzako zein arlo edo alderditan ote duzu bereziki dei horri erantzuteko beharra?

4. Zer nolako esperientzia duzu adiskidetzaren sakramentuan Jainkoaren errukia jasotzearen inguruan? Sakramentu horren prestaketa eta ospakizunean, zein osagaik laguntzen dizu gehien Jainkoarengandik jasotako barkamena aitortzen eta baloratzen?

5. Pastoral Idazkiko **Elkartearen eraldatzea: ateratzea bilatzen duen Eliza** atalean zera irakur dezakegu: *Gure lekuko Elizetan egin behar dugu bereizketa hori, zein egitura, usadio eta jarrera berritu behar dugun ikusteko* (28. zenb.). Zein alderdi positibo eta zein gabezia antzematen dugu gure elkarteetan beren pastoral eraldatzeari begira? Zein urrats eman behar dugu eraldatze horretan aurrera egiteko? Nola lagun dezake gure elkarteak *ateratzea bilatzen duen Elizaren* eraikuntzan?

6. Frantzisko Aita Santuak, Garizuma aldirako idatzi duen mezuan, kontuan hartu beharreko galdera batzuk egiten ditu: *Eliza unibertsalarentzat esan duguna parrokia eta elkarteetako bizitzan gauzatu beharra dago. Eliz errealitate hauetan, gorputz bereko atal izatearen esperientzia bizi ote dugu? Jainkoak eman nahi duena jasotzen eta konpartitzen duen gorputzekoak? Kiderik ahulenak, behartsuenak eta txikiak ezagutzen dituen gorputzekoak? Ala munduan urrun daudenekin konprometitzen den maitasun unibertsalean gordetzen gara, itxirik dagoen gure atearen aurrean eserita dagoen Lazaro ahaztuz?*

7. Gure gizarte eta eliz egoera zehatza aztertuz, zein errealitate identifikatzen dugu Espirituaren zantzu bezala gure garai honetan? Nola interpelatu gaituzte errealitate horiek?

Hausnarketa honen osagarri bezala, Adiskidetzaren sakramentua prestatzeko eta ospatzeko elementu batzuk aurkeztuko ditugu (IKUSI 2. ERANSKINA).

Kristau elkarte osoari dagokio inguratzen duen gizartearekin, behartsuekin eta urrundutakoekin harremanean jartzen duen atalasea zeharkatzea. Eliza, berez, misiolaria da, ez du bere baitan itxita geratu behar, gizon eta emakume guztiengana bidalia da.

Anai eta arreba maituek, benetan nabiko nuke Elizaren, bereziki gure parrokia eta elkartearen, agerpenerako gune diren familiak errukiaren uharte izatea, axolagabekeriaren itsasoaren erdian
(Aita Santuaren mezutik).

III. Errukiaren beharrea dauden eremuak

Irakurri pastoral Idazkiaren III. eta IV. kapituluak (36-76 zenb.)

Gaiaren zabaltasuna eta galdeketaren luzaera kontuan hartuta, gutxienez bi zatitan banatzea eta taldearen bi saiotan egitea komeni da.

0. Idatzi, zure iritziz, taldearen bileran argitu edo azaldu egin beharko lirakekeen esaldi edo puntuak.

1. III. kapituluak, zeintzuk dira zure bizitzarako interpelazio zuzen eta pertsonala erakusten duten eremuak edo zein esparrutan antzematen duzu kristau konpromiso berrirako deia? Zein alderdi zehatzetan?

2. Gizarte bizikidetzan: zeintzuk dira zure uste sendo eta konpromiso pertsonalak gizarte erabat adiskidetuaren garapenera dagokionez? Zer eskain dezakegu eta zer eskaini behar dugu kristau talde bezala?

3. Familiari dagokionez, nola egia bihurtu bertan errukiaren bizipen sakonagoa?

4. Kristau elkarte bezala, zein erantzun ematen diegu familien gaur egungo egoerari, beharrei eta erronkei? Zer aztertu, sustatu edo bultzatu beharko genuke erabakitasun handiagoz?

5. Nik neuk, zein konpromiso dut behartsu eta baztertuekin? Zein egoera eta pertsonarekin dut zuzeneko hartu-emanak? Zein alderdi aztertu edo sustatu behar dut harreman horretan?

6. Gure kristau elkarteak, benetan ote gara Eliza behartsua behartsuentzat? Benetan, zein leku dute behartsuek elkarteak? Nola egin dezakegu aurrera bide horretatik?

7. Zein jarrera eta esku-hartze pertsonal dut familia, lan, auzo, gizarte inguruko pertsonen sufrimendu eta gaixotasunezko egoeretan? Zein dei antzematen dut puntu honetan?

8. Kristau elkarteak, zein zerbitzu eskaintzen diegu gaixoei edo era askotako arazoengatik sufritzen ari direnei? Ekimen berriak bultzatu behar ditugu beste norbaiti zuzentzeko?




9. Nik neuk, nola parte hartzen dut gizartearen konpromiso eraldatzailean? Zein jarrera eta jardura zehatz dut kulturari, lanari, ekonomiari, politikari, komunikabideei dagokionez? Zein zailtasun izaten dut gizarte bizitzako eremu hauekiko? Zein gizarte bitartekotza edo erakunderen bidez parte hartzen dut eremu hauetakoren batean?

10. Batera jartzen ote ditugu kristau elkarteak gizartearen konpromiso eraldatzailearen inguruko esperientziak? Zeintzuk bai eta zeintzuk ez? Zergatik? Zer eskaini behar du elkarteak gizartearen eremu desberdinetan kristauen konpromiso eraldatzaile babesteko eta sustatzeko?

11. **Lekuko eta mezulari**, nolatan eta zenbateraino gara, bakarka eta kristau talde bezala? Zer behar dugu gure garaiko gizartearen eta kulturaren berri onaren lekuko sinesgarri eta mezulari izateko?

Hausnarketa hau Jainkoaren Hitzaren argitan egitea litzateke egokiena. Ebanjelioko bi pasarte (*saio bakoitzeko bana*) proposatuko ditugu:
Lk 10, 25-37 eta Mt 5, 13-16



Bihotz errukitsua izatea ez da bihotz ahula izatea. Errukior izan nahi duenak bihotz sendoa, irmoa izan behar du, tentatzailearentzat itxita dagoen baina Jainkoarentzat zabalik dagoen bihotza. Espirituaren eragina eta gidaritzaren onartzen duen bihotza eta, ondorioz, anai-arrebengana garamatzaten maitasunaren bideak egiteko gauza dena. Azken batean, bihotz txiroa, bere pobrezia ezagutzen dituen eta besteari alde dena ematen duena.

2015eko Garizuma aldirako Frantzisko Aita Santuaren Mezutik